


## GORPUTZ ARROTZAK EZTARRIAN TRABATUZ GERO

### BUXADURA ARINA:

Biktima urduri dago.  
Eztul egiteko gai da.

### ZER EGIN BEHAR DA?

- Saihestu kolpeak bizkarrean eta EZ sartu ezer ahoan.
- Biktima lasaitu eta **eztula egitera animatu.**
- Gehienetan ez tulak egoera konpontzen du.



Eztarri-trabatzearen bideoa.



BBB bideoa



### BUXADURA LARRIA:

- Larruazalaren kolorazio urdina.
- Eztul egiteko edo hitz egiteko ezintasuna.
- Arnasteko zailtasun handia.

### ZER EGIN BEHAR DA?

- Biktimaren atzealdean jarri, 5 kolpe eman bizkarraren erdialdean, aurreantz makurtzen den bitartean.
- Gorputz arrotza kanporatzen ez badu, hasi 5 konpresio abdominalekin/**HEIMLICH MANIOBRA**:

- Biktimaren atzean jarri, bere sabela bi besoez inguratuz.
- Ukabila hatz-lodiarekin barrurantz jarri, saihesten amaieraren eta zilborraren artean.
- Ukabila beste eskuarekin heldu.
- Sabelaldean 5 konpresio indartsu egin, gorantz eta barrurantz.



- 5 KOLPE** eta **5 ABDOMENeko KONPRESIO** sekuentzia egin, gorputz arrotza kanporatu arte edo konortea galdu arte.



KONORTERIK GABE badago:  
112 zenbakira deitu eta BBB  
maniobrak hasi.  
(BBBren QR kodea sartuko dugu)

